

Hasi dira erortzen harresi batzuk

EUSKAL HERRITAR

informatuak ondo aski daki Espainiak giza eskubideak urratu dituela hamarkadatan, eta urratzen dituela egun ere. ETaren aurkako borrokan, gainera, herritar askok justifikatu ditu eskubide zanpatze horiek, eta ETaren biolentziaren aurrean, estatuaren biolentzia onartu izan du, izan berau Kongresuaren itzalpekoa edo estoldetako jariokoa. Estatuak behin eta berriro bihurtu ditu bere arauak, legezko ez zena Konstituzioaren aterpean jartzeko.

Eta batzuetan, auzitegiek ere berretsi egiten dute hainbat eskubide zanpatzen direla, orain *Parot doktrina*-rekin Estrasburgoko Auzitegiak egin duen moduan. ETAko eta ETAkoak ez diren euskal presoek denetatik jasan behar izan dute Estatuaren aldetik, eta haien aurkako neurri ankerrena izan da orain Europatik indargabetu den arau irakurketa hau, giza eskubideen aurkakoa dela ebatziz.

Ines del Rioren kasuaren ondoren beste ugari etorriko dira. Batek, Estrasburgora bidean dira aurtengo martxoan eta ekainean Auzitegi Konstituzionalak atzera botatuko 20 bat presoren helegiteak. Eta ikusi beharko da zer gertatzen den oraindik auzitegi honek aztertzeaz dituen helegite guztiekin (horietatik 21 onartuak eta 14 oraindik onarpenaren galbahea pasatzeko).

Seguruenik, ikusi beharko da ea zer gertatzen den Espainiak Estrasburgoko Auzitegian jarritako helegitearekin, baina Ines del Rioren helegitea aho batez onartu da eta ez dirudi Espainiaren helegitea



onartuko duenik. Eta Del Rioren epaia berresten bada, Espainiak Gobernuak preso askatu beharko du, ez du beste aukerarik.

Ondoren, logikoena litzateke Espainiak Konstituzionalak bere egitea Estrasburgoko Auzitegiaren epaia, Parot Doktrina bertan beharra uztea eta honek eragindako preso guztiak kalean jartzea. Bizi dugun garai berrian, hau guztia auzitegien agindurik gabeko bide adostua beharko luke: denbora, dirua eta sufrimendu asko saihestez gain, bake bideak nabarmen sendotuko lirarteke.

MURRIZKETA, soldata beherakada eta eskubide sozialen etengabeko galera artean, zenbait hipotesi gero

Europako harresi sozialak bata bestearen atzean suntsitu eta gero, onartu beharko da azkenean kapitalismo neoliberalak irabazi duela eta amore eman?

eta sendoago ageri dira. Bat, austeritate neurriek ez dute ekonomia hazkunderik ekarriko, besteak beste, batez ere zorra ordaintzera bideratuta daudelako. Bi, herrialde askok dituzten zor publiko eta pribatuak ordainezinak dira: nola ordaintzen dira, adibidez, Espainiari kalkulatzen zaion 2,3 bilioiko zor pribatu eta publikoa? Hiru, edozelako irtenbidek zor horren ikuskaritza serioa eskatzen du, zer ordaindu

ahal izango den eta zer ez erabakitzeke.

Galdera orokorragoak ere gero eta leku sendoagoa hartzen ari dira pentsalari eta herritarren artean. Adibidez:

- Bat, posible ote da herritarrek Maastrichteko Europaren eraikuntza hau atzera botatzea eta ekonomia eta eskubide sozialen beste bateratze bati ekitea?

- Bi, epe laburrera hori oso gaitza ikusten denez, krisian itota dauden herrialdeak euroan mantentzeak ba al du zentzurik? Eta batzuk eurotik ateratzen hasten badira, utsiko al dio Europar Batasunak?

- Hiru, 70eko hamarkadaren erdialdean hasitako globalizazio prozesua, Europatik desglobalizatzen hasteko garaia ote da? Edo posible ote da globalizazioa arautzea, bere arauetan eskubide sozialei ere leku eginez?

- Lau, Europako harresi sozialak bata bestearen atzean suntsitu eta gero, onartu beharko da azkenean kapitalismo neoliberalak irabazi duela eta amore eman?

Erantzunak, nagusiki, herritarren esku dira.

